

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Balear Irletako ordezkariak batek Nafarroako LHetako nazio mailako erreferentziazko ikastetxeak bisitatu ditu

Balear Irletako Unibertsitateko eta Hezkuntzako Kontseilaritzako ordezkariak Osasun Eskola Profesionala, Energia Berriztagarri eta Efizientzia Energiako Imarkoaineko ikastetxea eta Iruñeko Irakasleen Eskola ezagutu dituzte

Ostirala, 2019.eko otsailak 1

Maria Francisca Alorda, Lanbide Heziketa eta Irakasleen Formazioko zuzendari orokorrak, Lluç Mas Lanbide Heziketako eta Kualifikazioetako Departamentuko zuzendariak, Son Llebre Ikastetxe Profesionaleko lau irakasleekin batera, Osasun arloan nazio mailan erreferente den Osasun Eskola Profesionala eta Imarkoaineko Energia Berriztagarri eta Efizientzia Energiako ikastetxeak bisitatu dituzte.



Nafar Lansare, Hezkuntza Departamentuko eta Balear Irletako ordezkariak Imarkoainen bisitan.

Bi bisitetan ikastetxeetako zuzendaritza bakoitzak ikastetxeen antolaketa eta lan egiteko modua azaldu dizkiete, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako arduradunek eta Nafar Lansare zerbitzuko teknikariek batera.

Era berean, Iruñeko Irakasleen Eskola bisitatu dute eta gertutik ezagutu ahal izan dute arlo profesional honetako (zerbitzu soziokulturalak) ikastetxeko eguneroko jarduna; Nazio mailako ikastetxe erreferentea izango baita datorren urtean Balearretako ikastetxea. Irakasleen eskolako zuzendaritzak hartu du Ikastetxeko Proiektuaren arlo garrantzitsuak azaltzearen ardura, figura profesionaleri dagokionez eta arlo metodologiko eta pedagogikoak jarraituz, aparteko garrantzia emanez enpresan egindako praktikan gertatutakoaren gainean lanerako eta hausnarketarako tartea ezarri.

Ordezkaritzak baikorki baloratu du Nafarroako Ikastetxe Erreferenteen aldetik jasotako informazioa eta arreta. Gainera, gonbitea luzatu diete Nafarroako ordezkariak Balear Irletako ikastetxe profesionalak ezagutu ditzaten.

Galería de fotos



Ordezkaritza Osasun Eskolara egindako bisitan.